

3. Gaia: Ebaluazioaren Kontzeptua, Osagaiak eta Faseak

J.F. Lukas

3. Gaia: EBALUAZIOAREN KONTZEPTUA, OSAGIAK ETA FASEAK

1. Kontzeptua
2. Osagaiak
 1. Asmoa
 2. Ebaluagaia
 3. Informazioa
 4. Ebaluatzailea
 5. Unea
 6. Balorazioa
3. Ebaluazio prozesuarenaldiak
4. Hezkuntza ebaluazioaren estandarrak
 1. Erabilgarritasun arauak
 2. Bideragarritasun arauak
 3. Zilegitasun arauak
 4. Zehaztasun arauak
 5. Ebaluazioaren erantzukizunaren arauak



Kontzeptua (1)

- *"Hezkuntza-helburuak zenbateraino lortu diren zehazteko prozesua"*. (Tyler, 1950).
- *"Hezkuntza-prozesuko etapa bat, honako xede hau duena: modu sistematikoan kontrolatzea zenbateraino lortu diren aurrez zehaztutako helburuetan aurreikusitako emaitzak"*. (Lafourcade, 1977).
- *"Ebidentzien bilketa sistematikoa, zehazteko ea benetan gertatzen diren aldaketa jakin batzuk ikasleengan, eta zenbateraino aldatu den ikasle bakoitza"*. (Bloom, 1975).

Kontzeptua (2)

- *"Informazioa biltzeko eta erabiltzeko prozesua, erabakiak hartzeari begira"*. (Cronbach, 1963).
- *"Honetan datzan prozesua: fenomeno bati buruzko informazio sistematiko eta objektiboa lortzean eta informazio hori interpretatzean, zenbait aukeraren artean hautatzeko"* (Livas, 1980).
- *"Informazioa biltzeko eta judizio-eraketarako erabiltzeko prozesua, ondoren judiziook erabakiak hartzeko erabiltzeko"*. (Tenbrik, 1984).



<https://www.youtube.com/watch?v=oiOjPUL6Wck&nohtml5=False>

Kontzeptua (3)

- "Informazio esanguratsua biltzeko eta analizatzeko prozesua, xedetzat edozein hezkuntza-errealitate deskribatzea duena, zertarako eta judizioak eman ahal izateko, hots, esateko ea egokitzen den aurrez ezarritako kalitate-eredu edo irizpide batera, judizio horiek oinarri izanik erabakiak hartzeko". (Mateo, 2000).
- "Hezkuntza-objektu bati buruz informazio esanguratsua lortzeko prozesu sistematikoa, ikusteko ea objektu hori aurrez ezarritako irizpide batzuetara egokitzen den; gero, hori oinarri izan daiteke hezkuntza-erabaki batzuk hartzeko." (Rodríguez Lajo, 1987)
- "Ebaluagairen baten balioaren edo merezimenduaren ikerketa sistematikoa". (Scriven, 1967; Joint Committee, 1988).

Kontzeptua (4)

"Ebaluazioa da: informazio esanguratsua -kuantitatiboa edo kualitatiboa- identifikatzeko, biltzeko eta analizatzeko prozesua, modu sistematiko, zorrotz, planifikatu, bideratu, objektibo, sinesgarri, fidagarri eta baliodunean, kasuan kasuko hezkuntza-ebaluagaiaren balioa eta merezimendua zehazteko xedez aurrez ezarritako irizpide eta erreferentzietan oinarritutako balio-judizioak emateko, ebaluagai hori hobetzen lagunduko duten erabakiak hartze aldera" (Lukas eta Santiago, 2016)



2.-Ebaluazioaren osagaiak

- 2.1.-Asmoa
- 2.2.-Ebaluagaia
- 2.3.-Informazioa
- 2.4.-Ebaluatzailea
- 2.5.-Unea
- 2.6.-Balorazioa

2.1.-Asmoak



Ebaluazio batutzailea (sumatiboa)

- Bere helburua ziurtatzea (zertifikatzea) da.
- Bukatutzat ematen diren prozesu edo produktuk baloratzeko erabilgarria.
- Adibideak:
 - Eskola testuen hautaketa
 - Titulazioak
 - Oposaketak, selektibitatea, ...



Prestakuntzazko ebaluazio (formatiboa)

- Bere helburua hobetzea da
- Prozesuak baloratzeko erabilgarria
- Prozesuarekin batera burutu behar da.
- Ebaluazio jarraitua suposatzen du
- Ezaugarriak:
 - Ikasleriaren ikaskuntza-zailtasun eta aurrerapenei buruzko datuen bilketa
 - Irizpidezko interpretazioa: banakakoa eta ez normatiboa
 - Jardueren egokipena ekarri behar du



Prestakuntzazko ebaluazio eta batutzailearen arteko diferentziak

<i>Prestakuntzazko Ebaluazioa</i>	<i>Ebaluazio Batutzailea</i>
Prozesuen ebaluazioari aplikatu dakioke	Bukatutako produktuei aplikatu dakieke
Funtzionamenduko prozesu beran erantsi behar da, bere elementu bat gehiago izanik	Prozesuaren bukaeran kokatzen da, prozesua amaitutzat ematen denean
Bere helburua, ebaluatutako prozesuaren hobekuntza da	Bere asmoa, aurretik ezarritako helburuak zein neurritan lortu diren zehaztea da eta ebaluatutako produktua positiboki ala negatiboki baloratu
Berehalako neurriak hartzerantz laguntzen du	Epe ertain eta epe luzerako neurriak hartzerantz laguntzen du.


**Prestakuntzazko Ebaluazioa eta Ebaluazio Batutzailea (1)
(Stufflebeam & Coryn, 2014)**

Deskriptore	Prestakuntzazko Ebaluazioa	Ebaluazio Batutzailea
Asmoa	Kalitatea ziurtatu. Hobekuntza	Ebaluatuen iritzi orokorra eman
Erabilera	Erabakiak hartzen lagundu	Arrakasten eta porroten erantzukizuna zehaztu. Ebaluatutako gertakarien ulermena sustatzea
Funtzioak	Hobekuntzarako atzeraelikadura eskaintzen du	Ebaluatuen baloreari buruz informatzen die kontsumitzaileei (adibidez, bere kalitatea, kostua, erabilgarritasuna, e.a.)
Orientazioa	Aurrera begira eta proaktiboa	Atzera begira eta erretroaktiboa
Noiz egiten da	Garapenean zehar	Garapena amaitu denean
Zerbitzu motak	Helburuak finkatzen, planifikatzen eta kudeatzen lagundu	Kontsumitzaileei zentzuzko erabakiak hartzen laguntzen die
Non gunea	Helburuak, ekintza bide alternatiboak, planak, planak gauzatzea, behin-behineko emaitzak	Gauzatutako proiektuak, ezarritako programak edo amaitutako produktuak; azken emaitzak; kostuak; bigarren mailako efektuak
Aldagaiak	Garatzen ari den programa baten alderdi guztiak	Meritu, balioa eta abarrekin lotutako dimentsio ugari

**Prestakuntzazko Ebaluazioa eta Ebaluazio Batutzailea (2)
(Stufflebeam & Coryn, 2014)**

Deskriptore	Prestakuntzazko Ebaluazioa	Ebaluazio Batutzailea
Audientzia	Proiektuan zuzenean parte hartzen duten pertsona guztiak	Babesleak, kontsumitzaileak eta beste eragile batzuk; programarekin interesatuak daudenak; proiektuarekin zuzenean parte hartzen ez dutenentzat bereziki diseinatua
Ebaluazio diseinuen izaera	Malgua, emergentea, moldagarria, interaktiboa	Batez ere finkoa, ez emergentea eta moldagarria ez dena
Ohiko metodoak	Kasu azterketa, behaketa, elkarrizketak (ohiko kontrolpeko esperimentuak desegokiak dira hemen)	Metodo ugari, kasu azterketak, esperimendu kontrolatuak eta kontrol zerrendak barne
Txostenen izaera	Aldizkakoak, askotan nahiko informalak, inplikaturako audientzien eskaerei erantzuten dietenak	Erregistro metatua; egindakoaren eta lortutakoaren ebaluazioa; ebaluatuen eta lehiakide potentzialen arteko konparazioa; errentagarritasunaren analisisa.
Prestakuntzazko ebaluazio eta ebaluazio batutzailearen arteko erlazioa	Askotan oinarria osatzen du eta ebaluazio batutzaileak osatzen ditu.	Askotan informazioa osatu behar da eta ebaluazio batutzailea egiten da aurretik egindako prestakuntzazko ebaluazioetan oinarrituz

Programaren bizi-zikloaren eta ebaluazioaren asmoaren arteko lotura
(Stufflebeam & Coryn, 2014)



Prestakuntzazko ebaluazioaren esanahi berriak

- Atzeraelikadura (*feedback*) eta aurreraelikadura (*feedforward*). Hobekuntzara bideratutako ebaluazioa
- Garapen ebaluazioa (Developmental evaluation). Patton, 2010. Ebaluatzaile proaktiboa.
- Prestakuntzazko ebaluazioa, Prestakuntzazko laburpen ebaluazioa eta Ebaluazio batutzailea. Alkin, 2011.
- *“Es un proceso planificado en el que tanto los profesores como los alumnos usan la evidencia basada en la evaluación para realizar ajustes en lo que están haciendo”* (Popham, 2013: 14)

Sailkatu beharreko ekintzak

- | | |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none">• Atzeraelikadura deskribatzailea funtsezkoa da ikasteko estrategiak sortzeko• Irakasleek ikasleak gidatzen dituzte ikasteko helburuak finkatzeko• Ikasleek lan "ona" eta lan "ahula" bereizten ikasten dute• Irakasleak ikaslearen ikaskuntza ebaluatzen du• Irakasleak eta ikasleak elkarrekin lan egiten dute ikaskuntza hobetzeko• Ikasteko helburu argiak eskaintzen dizkie ikasleei• Ikasleen motibazioa areagotu edo gutxitu dezake• Ikasleek ikasitakoa ebaluatzen du• Irakasleak ikasleei beren burua ebaluatzen erakusten die• Ikasleen motibazioa areagotzen du• Ikasleen sailkapena sustatzen du• Irakasleek zein ikasleek ebaluatzen dute ikaslearen ikaskuntza• Prozesu jarraitua• Prozesu jarraitua | <ul style="list-style-type: none">• Ikaslearen aurrerapena eta bere ikasteko beharrak ebaluatzen ditu• Ikasleek ez dute zuzenean parte hartzen ebaluazio prozesuan• Ikaslearen ulermen maila agerian uzten du• Enfasi gutxiago ikasleen ikaskuntza hobetzeko• Ikasleak bere ikaskuntzari buruz duen ezagutza (kognizioa) ebaluatzen du• Irakasleek ikasleei autokontrola eta hausnarketa lantzeko aukerak eskaintzen dizkiete• Ikasleek modu aktiboan parte hartzen dute beren ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioan• Estandarrak betetzeko erantzukizuna azpimarratzen du• Ikaslearen gaitasuna ziurtatzen du• Ikasleek ebaluazio prozesuan parte hartzen dute• Ikasleek beren ikaskuntza ebaluatzen dute• Ikasleen ikaskuntza eta motibazioa hobetzen ditu |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

Assesment OF, FOR, AS Learning (Lee, 2013)

Assesment OF Learning	Assesment FOR Learning	Assesment AS Learning
Assess what students have learned	Assess student's progress and learning needs	Assess student's cognition about their learning
Students are not directly involved in the assessment process	Students are involved in the assessment process	Students are actively involved in monitoring and assessing their learning
Certify student's competence	Descriptive feedback is essential in creating learning strategies	Teacher show students how to do self-assessment
May increase or decrease learner's motivation	Teacher and student work together to improve student's learning	Teachers provide students with opportunities to practice self-monitoring and self-reflection
Promotes ranking or sorting of students	Continuous process	Continuous process
Reveal student's level of understanding	Increase learner's motivation	Teachers guide student in setting learning goals
Less emphasis on improving student's learning	Provides clear learning targets for students	Students assess their own learning
Emphasizes accountability to meet standards	Students learn to differentiate "good" work from "weak" work	Improves student's learning and motivation
Teacher assess student's learning	Both teacher and student assess student's learning	

Ebaluazioa Formatiboa aurrera eramateko estrategiak (1):

1. Ahozko galderak ikasgela osoari.
 1. Galdera onak
 2. Zertarako egiten diren galderak
 3. Ikasleek galdera horien asmoa ezagutu behar dute
2. Proba objektibo laburrak
 1. Autoebaluaziorako baliagarriak.
 2. Urte batetik bestera balio dute.
 3. Hobe notarik gabekoak.



Ebaluazioa Formatiboa aurrera eramateko estrategiak (2):

3. Erantzun oso laburreko galdera irekiak

1. Hasieran, erdian edo bukaeran
2. Ideia nagusia laburtu, kontzeptu bat definitu, iritzi bat eman, buruketa bat...



4. Minutu Bateko Papera (*One Minute Paper*)

5. Ikasgelan talde txikiko jarduerak.

1. Galdera laburrak erantzun, ariketaren bat egin, ulermen zailtasunak komentatu,



2.2.-Ebaluagaia: Hezkuntza-Ebaluazioaren Esparruak

- Programen ebaluazioa
- Ikasleen ebaluazioa
- Ikastetxeen ebaluazioa
- Irakasleen ebaluazioa
- Hezkuntza Sistemaren ebaluazioa


2.3.-Informazioa

- Informazioa biltzeko estrategiak, teknikak, prozedurak...
- Informazioa analizatzeko prozedurak

2.4.-Ebaluatzailea

Ikasleen ebaluazioaren kasuan

HETEROEBALUAZIOA




Pertsona batek beste pertsona baten lana, ebaluatzen du.

Berdinen arteko ebaluazioa


KOEBALUAZIOA



Taldeka egindako jardueren ebaluazioa



AUTOEBALUAZIOA



Norberak ebaluatzen ditu bere jarduerak

Ikasle batek beste ikasle baten lana ebaluatzen du

2.4.-El/La Evaluador/a

HETEROEVALUACIÓN




Una persona evalúa el trabajo de otra persona

COEVALUACIÓN




Evaluación mutua de un trabajo realizado entre varios

AUTOEVALUACIÓN



Cuando evaluador y evaluado son coincidentes

EVALUACIÓN ENTRE IGUALES



Cuando un/a estudiante evalúa el trabajo de otro/a estudiante


2.4.-Ebaluatzailea

- Ikastetxe eta programen ebaluazioaren kasuan
 - Kanpo ebaluazioa
 - Barne ebaluazioa eta Autoebaluazioa
 - Ebaluazio mistoa



2.5.-Unea

- **Hasierako ebaluazioa:** ebaluazio prozesu baten hasieran aplikatzen da.
- **Prozesuaren ebaluazioa:** ikasleriaren ikas eta irakasleriaren irakaskuntzaren balorazio jarraia. Hori, prozesua ematen ari den bitartean, datuen bilketa eta analisi sistematikoa eta egokiak diren erabakiak hartzearen bitartez egiten da.
- **Bukaerako ebaluazioa:** prozesu bat bukatu denean (zikloa, etapa, ikasturtea, unitatea, ...) egiten den ebaluazioa.




2.6.-Balorazioa

- *Ebaluazio nomotetikoa*

- *Ebaluazio normatiboa* edo arauemailea: Taldeak duen maila kontutan hartzen da eta talde horrek duen mailaren arabera ebaluatzen da.
- *Ebaluazio kriteriala* edo irizpidezkoa: Kanpotik finkatutako irizpidea aplikatzen da.


- *Ebaluazio pertsonalizatua* edo idiografikoa: norberak dituen gaitasun, ahalmenak, jarrerak dira erreferenteak.

3.-Ebaluazio-prozesuaren faseak (Mateo, 2000)



4.-Hezkuntza Ebaluazioaren Estandarrak

- Erabilgarritasun-arauak
- Bideragarritasun-arauak
- Zilegitasun-arauak
- Doitasun-arauak
- Erantzukizun-arauak



U: ERABILGARRITASUN-ARAUAK

- **U1 Ebaluatzailearen sinesgarritasuna:** ebaluazioak pertsona kualifikatuek egin behar dituzte, ebaluazioaren testuinguruan sinesgarritasuna ezartzeko eta mantentzeko.
- **U2 Audientzien arreta:** ebaluazioek, arreta jarri behar diete programan parte hartzen dutenei edo ikertuak direnei eta ebaluazioak eragiten dien pertsona eta taldeei.
- **U3 Helburu negoziatuak:** ebaluazioaren helburuak identifikatu eta etengabe negoziatu behar dira, audientzien premien arabera.
- **U4 Balio esplizituak:** ebaluazioek, helburuak, prozesuak eta judizioak sostengatzen dituzten balio indibidualak eta kulturalak argitu eta zehaztu behar dituzte.
- **U5 Informazio garrantzitsua:** ebaluazioko informazioak audientzien identifikatutako eta sortzen ari diren beharizanetarako balio behar du.
- **U6 Prozesu eta produktu esanguratsuak:** ebaluazioek, jarduerak, deskribapenak eta iritziak eraiki behar dituzte, parte-hartzaileak animatzeko beren interpretazioak, ezagutzak eta portaerak berraurkitu, berrinterpretatu edo berrikustera.
- **U7 Txostenen aurkezpen eta komunikazio egokiak:** ebaluazioek, audientzia desberdinen etengabeko informazio-beharrei erantzun behar diete.
- **U8 Ondorioekiko eta eraginarekiko kezka:** ebaluazioek erabilera arduratsua eta egokitua sustatu behar dute, eta babes-neurriak hartu behar dituzte erabilera desegokiaren eta/edo nahita egin gabeko galeraren ondorio negatiboen aurrean.

F: BIDERAGARRITASUN-ARAUAK

- **F1 Proiektuen kudeaketa:** ebaluazioek, proiektuak kudeatzeko estrategia eraginkorrak erabili behar dituzte.
- **F2 Prozedura praktikoak:** ebaluazio-prozedurek, praktikoak eta sentikorrek izan behar dute, programak nola funtzionatzen duen kontuan hartuta.
- **F3 Testuinguruaren bideragarritasuna:** ebaluazioek, interes kultural eta politikoak eta gizabanakoen eta taldeen beharrak ezagutu, kontrolatu eta orekatu behar dituzte.
- **F4 Baliabideen erabilera:** ebaluazioek, eraginkortasunez eta efizientziaz erabili behar dituzte baliabideak.

P ZILEGITASUN-ARAUAK

- **P1. Konfiantzazko orientazio integratzailea:** ebaluazioek, interesdunei eta haien komunitateei erantzun behar diete..
- **P2 Akordio formalak:** ebaluazio-akordioak negoziatu egin behar dira betebeharrak esplizituak izan daitezen eta bezeroen eta audientzien itxaropenak eta kultura-testuinguruak kontuan har daitezen.
- **P3 Giza eskubideak eta errespetua:** ebaluazioak diseinatu eta egin behar dira giza eta lege-eskubideak babesteko eta parte-hartzaileen eta audientzien (interesdunen) duintasuna mantentzeko.
- **P4 Argitasuna eta ekitatea:** ebaluazioek, ulergarriak eta bidezkoak izan behar dute, interesdunen beharrei eta helburuei erantzuteko.
- **P5 Gardentasuna eta dibulgazioa:** ebaluazioek, helburu, muga eta ondorioen deskribapen osoa eman behar diete interesdun guztiei, baldin eta egiterakoan legezko betebeharrak urratzen ez baditu.
- **P6 Interes-gatazkak:** ebaluazioek, modu irekian eta zintzoki aztertu behar dituzte ebaluazioa arriskuan jar dezaketen benetako edo antzemandako interes-gatazkak.
- **P7 Erantzukizun fiskala:** ebaluazioek, esleitutako baliabide guztiak kalkulatu behar dituzte, eta prozedura eta prozesu fiskalak bete.

A DOITASUN-ARAUAK

- **A1 Ondorioak eta erabaki justifikatuak:** ebaluazioaren ondorioak eta erabakiak esplizituki justifikatu behar dira ondorioak dituzten kultura eta testuinguruetan.
- **A2 Informazio baliagarria:** ebaluazioaren informazioak aurreikusitako helburuei erantzun behar die, eta baliozko interpretazioen oinarria izan behar du.
- **A3 informazio fidagarria:** ebaluazio-prozedurek informazio fidagarria eta sendoa eman behar dute aurreikusitako erabileretarako.
- **A4 Programaren eta testuinguruaren deskribapen esplizituak:** ebaluazioek, programak eta haien testuinguruak dokumentatu behar dituzte, ebaluazio-helburuetara egokitutako xehetasunez eta zabaltasunez.
- **A5 Informazioa kudeatzea:** ebaluazioek, informazioa biltzeko, berrikusteko, egiaztatzeko eta biltegitratzeko metodo sistematikoak erabili behar dituzte.
- **A6 Diseinu eta analisi egokiak:** ebaluazioek, teknikoki egokiak diren eta ebaluazioaren helburuetarako aproposak diren diseinuak eta analisiak erabili behar dituzte.
- **A7 Ebaluazioaren arrazoiketa esplizitua:** jasotako informaziotik eta haren azterketatik emaitzetara, interpretazioetara, ondorioetara eta judizioetara daraman ebaluazioaren arrazoiketa, argia eta guztiz dokumentatua izan behar da.
- **A8 Txostenen komunikazioa eta aurkezpena:** ebaluazioaren jakinarazpenek ikuspegi egokia izan behar dute, eta kontzeptu okerretatik, aurreiritzietatik, distorsioetatik eta akatsetatik babestu behar dira.

E ERANTZUKIZUN-ARAUAK

- **E1 Ebaluazioaren dokumentazioa:** ebaluazioek, oso-oso dokumentatu beharko dituzte negoziatutako helburuak eta aplikatutako diseinuak, prozedurak, datuak eta emaitzak.
- **E2 Barne-metaebaluazioa:** ebaluatzaileek, arau aplikagarri hauek eta beste batzuk erabili behar dituzte diseinuari, erabilitako prozedurei, bildutako informazioari eta ebaluaziotik lortutako emaitzei buruzko kontuak emateko.
- **E3 Kanpoko metaebaluazioa:** babesleek, bezeroek, ebaluatzaileek eta gainontzeko audientziek, kanpoko metaebaluazioak egitea bultzatu beharko lukete, arau aplikagarri hauek eta beste batzuk erabiliz.